

ASTEKARIA - 2010eko azaroaren 26an - XIV. urtea - Usurbil, 429. zenbakia

www.noaia.com

Noaia!!



Ostiral honetan,
dantza eta zinea Sutegin



Erreleboa aurkitu du Andatza Mendi Taldeak

txitxarro

erretegia

- eguneroko menua
- asteburuko menua
- karta

*Etar zaitez
eta ondo para
gira haberenean!!*



txikiardi auzoa · iguarte kalea. 11 · 20100 · usurbil

T. 943 36 99 64

FRANTSES KLASEAK

Hou la la!



**Beste talde bat osatzen ari gara
"ZERO" mailatik ASTEARTETAN
17:00-19:00
ANIMA ZAITEZ!!!**

609 75 47 99 Usurbil

Sarrerren salmenta



SERVIKUTXA
943 00 12 00
www.kutxa.net

Andoain



**Clownic taldeak aurkeztuta
%100 TRICICLE**

ABENDUAK 3, ostirala, 21:30h Auditorioan



ANDOAINGO UDALA Gipuzkoako Foru Aldundia

Informazio gehiago: 943.303.540 www.andoain.org

Albisteak iruditan!!

Ur botila hutsak, zuhaitzetan zintzilik

Azaroaren 30ean beteko du Patxi Segurolak frantziar estatuan jarri zioten espetxe zigorra. Kanporatu eta espainiar poliziaren esku gelditu daitekeelakoan, azaroaren 8az geroztik gose greban dago aginagarra. Segurolari elkartasuna adierazteko bestalde, egunotan hainbat mobilizazio burutu dira.

Hilabeteko azken ostirala izanik, ostiral honetan presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea burutuko da Mikel Laboa plazan, 20:00etan.

Larunbatean, azaroak 27, herriko eragile, alderdi politiko eta herritarrekin burutu nahi den hamabi orduko elkarretaratzea deitu da frontoian, goizeko 10:00etatik aurrera. Azkenik, Segurolaren aldeko elkartasun adierazpena burutuko da igandean, azaroak 28.



BOTILAK ZINTZILIKATU DIRA HAINBAT TOKITAN, PATXI SEGUROLAREN GOSE GREBA OHARKABEAN PASA EZ DADIN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

HURBILAGO TXARTELAZ HIZKETAN **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

SANTA ZEZILIA, IRUDITAN **9. OR.**

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA **10. OR.**

ERLE EGUNA, IGANDE HONETAN **12. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725



IMANOL UBEDA

Behobia-Donostia

9:00. Autobusera igo gara anaia eta biok. 20 kilometroko lasterketa bat egitera goaz Behobiara. Euria ari du. "Ze ostia egiten dugu hemen... Hau azken aldia izango da, datorren urtean ni ez nator!", esan dit anaia; ni, konforme antzean.

9:45. Behobiara iritsi gara. Lasterketa ez da hasi. Eta guk, 11:15ean dugu irteera ordua, pentsa. Denbora gehiago pasako dugu hemen zain, lasterketan korrika baino. Buf... Batzuk beroketa lanak egiten hasi dira, ordu eta erdi lehenago! Euria ari du Behobian. Toki arraroa da hau. Chez Pepe izeneko taberna baten ondoan gaude. Aterpe bat topatu dugu eta isilik jarraitu dugu jendearen ibilera, janzkera... Gasolindegia bat baino inpertsonalagoa behar du izan mugaren erdian dagoen "irla" bitxi honek. Hotz handirik ez baina haize pixka bat badabil eta arropa gutxi dugu soinean.

10:30. Joseina Etxeberria matraka ematen dabil iritsi garenetik. Jendeak, sikiera, gustura jaso ditu esatariak jarri dituen abestiak, U2, Prodigy... Irteera eman arteko denbora, nola edo hala bete behar. Gu izango gara arraroenak hemen.

10:55. Txiza egin eta beroketa lanak egiten hasi gara. Sahararen aldeko pegatinak nagusi dira lasterkarien artean. Lagun batzuk ezagutu ditugu eta bi hitz egin ditugu. "Ea atertzen duen", "Animo" eta antzeko txikikeriak.

11:00. Lasterketa hastera doa. Jendea urduri dago. Irteteko gogoz. Baina irteera mailakatu da, aurreko edizioetan egin-dako denboraren araberakoa. Batzuk, beste ordu erdi bat ere itxaron beharko dute.

11:15. Gure ordua da. Guk dortsal urdina dugu, "7" taldekoekin atera behar dugu. Joseba Permach dugu ondoan. Kirolaria omen zen gaztetan eta, hala izango zen gainera, kirolari planta duelako gizonak. Hiru egun lehenago, Madrilan zen, Audientzia Nazionalean. Han egon ondoren, liberazio handia behar du izan 20 kilometroko lasterketa egiteko aukera izatea, inoizko denborale txarrenean izanda ere... "5, 4, 3, 2, 1 aurrera!" oihuka entzun diogu Joseinari bafletan (etxean ere, hala hitz egingo al du?).

--:-- Hasi gara korrika. Bazen garaia! Akabo irteerako zala-parta. Korrika hasi eta berehala isiltasuna nagusi... Atzean utzi dugu Behobia.

--:-- Gaintxurizketako malda begibistan dugu. Ondo goaz. Gure martxan. Katalan asko ditugu inguruan. Jende asko korrika, jende asko animatzen. Emakumeentzat dira animo handienak, ordea.

--:-- Pasa dugu Gaintxurizketa, nahiko ondo, eta Lezora jaisten hasi gara. Pirata bandera handi bat duen xelebre bat bide bazterrean. Eta senyera eta ikurrina astinduz beste xelebre bat aurreraxeago.

--:-- Lezon jende asko zain. Euskal presoen aldeko banderak eta oihuak jendartearen (Pasaiko portuan edota Zurriolan bezalaxe). Blai gaude. Euria ari du etenik gabe.

--:-- Trintxerpen sartu eta Tourmalet bezain gogorra izan behar duen maldari ekin behar diogu laster. Mirakruzeko gainera iritsi arte, atsedean izpirik ez. Jendetza bi aldeetan, animoak ematen. Bapatean, Jesusmari Zamora, Realeko jokalaria ohia gu animatzen. Ez dugu elkar ezagutzen. Baina lasterketa honek hori du, animo denak zuretzat ere badirela. "Animo!" esan dit Zamorak niri begira. Joder, txikitan Zamora izan nahi nuen ni (nire belaunaldiko gehienak bezalaxe). Eta orain, bera gu animatzen! Anaiari, ordea, besoa luzatu eta bostekoa eman dio. Igoerako azken metroetan, burua lurrean iltzatuta dugu, Arzaken parera noiz iritsiko desiatzen. Mirakruz gainditu dugu azkenean. Hiru kilometro eta kito!

--:-- Azken kilometroa. Jendea esprintatzen hasi da. Segundo batzuetan marka hobetu nahian edo. Ulertezina. Horrela ematen dira ematen diren ezbehar gehienak...

12:50. Helmugara iritsi gara. Euria egin du etengabe, haizea ere dezente ibili da azken zatian... Baina gustura aritu gara. "Dedio, gure marka hobetu dugu gainera!". Elkarri bostekoa eman eta autobuserako bidea hartu dugu, berriz ere.

13:01. Autobusean gaude. Anaia, "gustura ibili naiz zapatilla hauekin. Datorren urtean ere, hauekin aterako naiz"...

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: abenduak 3. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 29.

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Otar-Goxo
Elizkargiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

TAXI
677 37 34 66
943 36 69 69
Jose Etxabe (24h) USURBIL

Patxi Iparragirre, Hurbilago elkarte

“Merkatari bakarrik ez, herriko beste talde bat izan nahi dugu”

Herriko merkataritza eta ostalaritza sektoreak suspertzeko, alorreko plana martxan dute jada Hurbilago Elkartek eta Usurbilgo Udalak. Plan horren baitan, egun bilguneko kide diren 44 establezimenduek aurrerapauso bat eman nahi dute; komertzio soilak izateari utzi eta herriko bizitzan presente egotea, burutuko dituzten ekimen desberdinen bidez. Lehenengoa martxan dute jada; “Hurbilago Txartela”.

NOAUA! Eguberriak ate joka. Zer nolako aurreikuspenak dituzue Hurbilagotik 2010a amaitzeko?

Patxi Iparragirre. Orokorki guretzat azaroa nahiko lasaia izaten da merkatarialorrean eta horregatik urte bukaerak bultzada ona ematen dio, gabonetan beti kontsumoa igo egiten da. Ia ondo joaten den. Krisia dela eta bestalde, Hurbilago Txartela martxan jartzeko hil ona dela pentsatu dugu.

N. Herri merkataritza eta ostalaritza alorrak biziberritzeko plana martxan duzue. Herritarrek zergatik egin behar ko lituzkete erosketak Usurbilen?

P. I. Daukagun tresnarik garrantzitsuena profesionaltasuna eta kalitatea dira. Uste dut jendea konturatzen dela zer daukagun eta zergatik. Jendea kontzientziatu nahiko genuke, herri mailan uste baino gauza gehiago daudela, eta kalitatea zein profesionaltasuna konparatzen baditugu, gustura aterako dela.

N. Abia den plan horretako klabe nagusiak zeintzuk dira?

P. I. Egoera zein zen ikusita zerbait egin beharra zegoela, lan gogorra egin behar zela ikusten genuen. Besteak beste, lokal komertzialak husten ari dira. Plan honen bidez, Hurbilagoren presentzia herritarren artean nabarmendu nahiko genuke, promozio kanpainekin, jendea konturatu non eta zer dagoen, eta bestetik, fidelizazio txartela martxan jarriko dugu. Auzoetako jendea-

rentzat txandakako aparkalekuak jartzea ere nahi dugu.

N. Elkarteko kide dira herriko 44 establezimendu, Kaxko ia osoa?

P. I. Gehienak gaude. Badaude oraindik sektorearen aldetik kezka eta beldurrak, baina nik uste denborarekin gauzak ondo badoaz, gehiago izango gara. Hasieran, normala da, beste herrietan ere berdin gertatzen da. Halako proiektu indartsuekin, establezimendu kopuru batekin hasi eta denborarekin jende gehiago biltzen joan da. Beste herrietan oso positiboa izan da balantzea. Elkartetik kanpo dauden establezimenduei hasteko esan nahi nieke eta sartu ez direnak, ikusi dezatela nola doan egitasmoa eta gu prest gaudela jende guztia hartzeko.



PATXI IPARRAGIRRE, HURBILAGO ELKARTEKO PRESIDENTEA.

Hurbilago Txartela, erabilgarri abenduaren 1etik aurrera

N. Hurbilago Txartelaren funtzioak zeintzuk dira?

P. I. Txartelak puntu trukaketarako balioko du, bezeroak berak erabakitzen du erosketak nola ordaindu; diruarekin edo txartela erabilia. Horrez gain, txartel honekin posible dute, erosketak handiagoak direnean, hiru hilabetera ordaintzea inolako komisiorik gabe. Gainera, zozketetan parte hartzeko aukera ere emango du. Bestalde, txartelak duen beste abantailetako bat; ez du inongo entitate edo banketxe aldatetarik eskatzen. Gainera, ez du ez mantentze gasturik ezta komisiorik ere, doakoa da.

N. Bezeroak hasi dira txartel eske, txartelari buruz galdezka?

P. I. Jendea aurrena zer den galdezka hasten da. Batzuk badakite beste herrietako esperientziengatik zer den. Baina jendeak berrietasun bezala bizi du. Gero ordea, ondo azalduta, jendea-

ak oso ondo hartu du. Nik uste funtzionatzen hasten denean arrakasta handiagoa izango duela.

N. Abenduaren 1etik aurrera funtzionamenduan eta lehen deskontuak?

P. I. Abendu osoan erosketak txartela-ekin ordainduta, %5eko deskontua Hurbilago elkarteko establezimenduetan.

N. Txartela eskuratzeko zer egin behar da?

P. I. Hurbilago Elkarteko edozein establezimenduetan eskatu daiteke. Eskuorri bat bete behar da datu pertsonalekin, eta eskatutako elkarteko establezimenduan utzi. Txartela egiteagatik bost euroko deskontua jasoko du bezeroak establezimendu horretan. Esan oso erraza dela egitea eta pertsonala dela. Familiako kide bakoitzak txartel bana izan dezake eta abantaila bat dela ikusi behar da, ez inongo karga.

SANTUENA

IÑAKI LARRAÑAGA

Auzoko obrak



Obrak, obrak, obrak... Halaxe gaude gure auzoan, obrak alde guztietan, aldaketa handia izango dugu datorren urtean, eta gustora hartuko ditugu gainera. Beno, denok ez ditugu gus-tura hartuko, batzuek kexa izango dute,

baina hori ere betikoa da, zer egingo diogu ba.

Frontoi bat auzoan, gehi beste hainbeste berritze lanek onurak ekarriko dizkigutela ziur naiz, ze eskubaloizelaia ere... Ea gauza hauekin guztiekin, gazte gehiago ikusten ditugun kirola egiten. Ni behintzat hor ibiliko naiz seme alabekin, eta nere emazteak nahi badu...

Baita ere aprobetxatu nahi nuke hemendik gure alkateari eskerrak emateko, eta ez bakarrik obra hauengatik guz-tiengatik, batez ere, aurretik izandako jarrerarengatik.

Ez da ohikoa izaten auzotarrak galdetzea, ze behar dituen jakin eta horiek guztiak kontuan hartzea, edo agian hori askotan egiten dute politikariek?

Bakoitzak erantzun dezala. Gaia aldatuta, jendea gabonak begira ere jarri da, eta dagoeneko hor dabilta presta-keta lanetan Santueneko elkarteak, Santo Tomas egune-



rako hain zuzen ere. Eutsi horri, badakizue esaldiak zer dioen; batzuek ondo pasatzeko...

Hemendik auzotar guztiak agurtu nahi nituzke, neure urteko azken kronika baita. Beraz datorren kronika 2011n izango da. Ez da ezer falta, segi ondo eta ea martxo aldera frontoi berria inauguratzen dugun, bestela Enrike laister hasiko da zerbait esaten...

KALEZAR

BELMONTE AUZO ELKARTEA

Ur kontuak

Hemen gatzoz berriro ere Belmonte elkarte-kook, ur kontuekin oraingo honetan. Ur mozketak izan ditugu auzoan, hiru egunez, ostiral, larunbat eta joan den asteo ostegunean. Abisurik pasa gabe izan dira, gutxi gorabehera bi orduko iraupena izan dute mozketek. Badirudi tuberia lehertu dela, hala adierazi dute telefonoz galdetuta-koan. Zerbaitetan dabiltzala argi dago, bi hesi jarri baitituzte kotxeak ez zeharkatzeko. Egia esan infor-mazio handirik ez dugu, udaletxeak zerbait adierazi ezkerro auzotarrei jakinaraziko zaie.

Ur kontuekin jarraituz, esan beharra dago, behin eta berriro Udalarri adierazi zaion bezala, Belmonte kalea tamalgarri dagoela, leku batzuetan lurra hondor- ratuta dago eta putzuak sortzen dira. Udazken eta neguko eguraldia kontutan izanez gero, hemendik aurrera horrelako asko izango dugu. Ondorioz porta- letara sartzen da ur hori. Eskertuko genuke gutxienez parean geratzen diren zulo horiek konponduko bali- ra.

Urak beti eman ditu lanak, behar beharrezko dugun ondare urria bada ere.

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Aire kalitatea eta kutsadura

Atxegalden aspalditik dugun airearen kutsadurari buruzko kezka badirudi herri osora zabaltzen doala pixkanaka.

Denbora asko daramagu ezjakintasun batean. Azken bi urte hauetan eman diren minbizi kasuen areagotzea, heriotzan amaitu direlarik hein handi batean, normala ez dela eta zerbait arraroa egon behar duelaren susmoak gurekin daude momenturo.

Azkenaldian publikoago egin bada ere, auzotar batzuek bul- tzaturiko firma bilketa dela medio eta hauen agerpenarekin ETBko eguneroko programa batean, urte hauetan zehar salake- ta hau egin duten auzotar gehiago egon dira. Usurbilgo Udala beraz, jakinaren gainean zegoen eta honen inguruan lanean ziharduen.

Horren islada izango da ostegun honetan, azaroak 25, arra- tsaldeko 18:30etan Udarregi ikastolako erdiko aretoan Udalak deituriko bilera. Aurreko Noauan! agertzen zen bezala, "udale- rriko aire kalitateari eta kutsadura elektromagnetikoari buruzko informazioa eskainiko dute. Legegintzaldi honetan, Udalak alor honetan emandako pausoen eta hartutako neurrien berri emango du". Ezinegona baretu asmoz, herritar asko bilera honetara jakinminez joango garela dudarik ez dut.



AGINAGA

M^A ANGELES ARRUTI

Aginagako biztanleria



Banuen gogoia Aginagako datuak jaso eta paperean jartzekoa. Aurretik esan beharra nago ez dudala errolda edo antzeko datu ofizialik izan, esku artean ondoren aurkezten ditudan zenbakiak egiteko. Aginagak ordea hori du, txikia izanda ondo ezagutzeko aukera ematen du eta etxez etxe ere ezagutzen garela esan liteke. Batean eta bestean galdetu ondoren honako erradiografia egin liteke.

Hona hemen Aginaga osatzen duten etxe moten zenbakiak. Bertan baserri eta etxebizitza guztiak hartu ditut kon-tutan:

Bizitza bakarreko etxea	56 etxe
Bi bizitzako etxeak	20 etxe
Hiru bizitzako etxeak	5 etxe
Lau bizitzako etxeak	6 etxe
Bost bizitzako etxeak	3 etxe
Sei bizitzako etxeak	5 etxe
GUZTIRA	95 etxe

Aipatutako etxeetan ere banan bana, zenbat pertsona bizi diren aztertu dut eta beti ere nire datuen arabera, 442 per-

tsona bizi gara Aginagan. Honekin esan daiteke batz bestea, etxe bakoitzean 4,65 pertsona bizi garela. Datu hauek Usurbilgo datuekin alderatzen baditugu (usurbil.net orrialdean Usurbil Zenbakitan atalean ikus daitezke) ia bikoitza dela esan dezakegu. Usurbilen, aipatutako datuen arabera etxe bakoitzean 2,72 biztanle bizi dira. Datu curiosoa dela iruditut zait niri. Bestalde, 95 etxe horietan bizi diren 442 biztanleetatik 37 pertsonak (datuak biltzen ari nintzen tartean hauetako bi pertsona hil dira), 80 urtetik gorako adina dute eta hauetatik hiruk 90 urtetik gora dituzte. Hau da biztanleriaren %8,37, 80 urtetik gorakoa da. Usurbilen ehuneko hau %3,90koa da. Beraz, esan dezakegu Aginagako biztanleria Usurbilgoa baino zaharragoa dela. Hauxe nire azterketa eta datu bilketa.

Gabon eskea

Deialdi bat ere egin nahi nuke tarte honetan. Abenduaren 24an, urtero bezala, goizeko 9:00etan Elizatik irtengo gara Gabon Eskean. Hemendik gonbidatu nahi nituzke gazte, heldu eta helduagoak gurekin kantatzera irtetera, benetan ederra izaten da eta.

Datozen jaiak ondo ondo pasa eta zoriontsuak izan!

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Ez naute ezagutu nahi



Nire anaiak bigarren semea izan zuen, gabonak iritsiko dira, 26 urte beteko dira amak izan ninduela, eta ni... ez nago han ospatzeko. Nire familia, lagunak... zirenak han geratu dira. Garai haiek han eta orduan ziren. Garai hauek hemen eta orain dira. Hemen egoteko tranpa egin dutenetako bat naiz. Bizitza arriskatu dutenetako bat. Eta zuek nahi ez dituzuen lanak egiteko giharririk ez duenetako bat. Nire eskuek ebakuntzak egiten dituzte edota berdin eskulturak. Ni bezalako batek zertan lan egin zail ikusten duen horietako bat. Horietako bat...baina ez naiz zenbaki bat: izen eta abizenak ditut. Ez naiz nintzena. Baina izan eta bizi nahi dudana izateko etorri naiz. Ez dakit zer aurkituko dudan bidean, baina topatu arte ez naiz gelditu geratuko. Eta gutxiago zuetako askok uste duzuen moduan, ez naiz zuhaitzetara bizitzera itzuliko gure haur sabel-puztu beltzekin eta gure zorri eta dantza erritualekin. Zu bezala garbitzen naiz edo orrazten edo gosaltzen. Nire bizilagunekin topo egiten dut. Beheko okindegian ogia erosten eta merkatura joaten. Baina migratzailea naiz eta ez naute ezagutu nahi.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Nekeetan...

Nekeetan... irria ezpainetan! Hori da “a mal tiempo buena cara” esaera-rako Gotzon Garatek topatu zuen euskarazko baliokidea. Eta esaera zahar horrekin bat dator erraustegiaren kontrako Zarauzko lagunaren jarrera. Zarautzen ere, Hernanin, Donostian eta Orion bezala, Zero Zabor taldea osatu dute eta kristoren martxarekin datozkigu. “Nekea, irria ezpainetan” esaera zaharra da baina kostaldetik molde berriekin datoz. Kamara hartu, hogeita hamar bat friki Usurbilgo plazan elkartu eta, Lady Gaga inspirazio iturri, koreografia asmatu eta gonbidatu ospetsuekin abesti itsas-korra oinarri duen munduko bideoarik arraroena muntatu dute. Hori marka! Bideoa Interneten jarri eta aste betean 3000tik gora lagunek ikusi du. Hit of the year... Zorionak zarauztarrei eta bideoan parte hartu zuten guztiei, bejondeizuela! Bideoa abestiko zatirik apoteosikoenarekin utziko zaituztet, jarri Ken7-ko Eñaut Elorrietaren ahotsa eta... “Iritsi da, hau da momentua, mugi gaitezen, berandu baino lehen... Iritsi da, hau da momentua, erabaki, ez pasatzen utzi... o-o-o-o-o-ooooooooo, ez pasatzen utzi... o-o-o-o-o-ooooooooo, berandu baino lehen, hartu nahi dut arnas...”



Larunbat honetan, Zero Zabor taldearen aurkezpena Artzabalen

Atez atekoaren aldeko eta erraustearen aurkako taldeek bat egin, eta Gipuzkoa Zero Zabor gizarte mugimendua sortu zuten duela hilabete batzuk. Ekonomiaren zein osasunaren ikuspegitik Zubietako errauste plantak ez duela “ez hankarik ez bururik” aldarrikatu zuten, eta Gipuzkoa “zero zaborreko lurraldea” izatea lortu nahi du mugimendu berri horrek. Usurbilgo Atez Ate Dudipe! taldeak Zero Zabor taldearekin bat egin du.

Larunbat honetan aurkeztuko da Usurbilgo Zero Zabor taldea Artzabal Baserrian, eguerdiko 12:00etan.

Bestetik, Juan Manuel Sanchez Gordillo, Marinaleda (Sevilla) udalerriko alkatea bisitan izan da Usurbilen. Atez ateko bilketa sistema gertutik ezagutu zuen udal zein Gipuzkoa Zero Zabor-eko ordezkarien eskutik.

Sanchez Gordillo orain dela 30 urtetik da Marinaledako alkatea CUTeko ordezkari bezala (Colectivo de Unidad de los Trabajadores). Lehengo astean Hernanin izan zen hitzaldi bat ematen eta hauek *Kronikan* jasotako adierazpenak.



BISITAN. IMANOL AZPIROTZ ZINEGOTZIA ETA ZERO ZABOR TALDEKO KIDEEN AZALPENAK JASO ZITUEN MARINALEDADA UDALERRIKO (SEVILLA) ALKATEAK.

Lurrak herritarrentzat

“Marinaledan arazo nagusia langabezia zen eta langabeziarik ez izateko konponbidea lurrak lortzea zen. Baina nola lortu lurrak? Aztertzen hasi ginen eta konturatu ginen Infanterriko Dukea, Iñigo de Artea jauna, Espainiako erre gearen laguna... zela lur gehien zituena. Ehundaka okupazio egin ditugu 12 urtetan eta azkenean,

1.200 hektarea lortu ditugu”, adierazi zuen Sanchez Gordillok, Hernanin eskainitako hitzaldian. Biharamunean, Usurbilen izan zen atez atekoa ezagutzen.

Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko, “autoeraikuntza bidez funtzionatzen dute eta gazteek 15 euro ordaintzen dituzte hilabetea”. 350 etxe egin dituzte eta beste 100 egiten ari dira.

Lauaxeta Saria, aurtengoa Joan Mari Torrealdairentzat izango da

Euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik, Bizkaiko Foru Aldundiak urtero ematen duen Lauaxeta Saria aurtengoan Joan Mari Torrealdaik jasoko du. Sari banatze ekitaldia, Euskararen Nazioarteko Egunean burutuko da, abenduaren 3an beraz.

Jose Luis Bilbao Bizkaiko Ahalduen Nagusiaren eskutik jasoko du saria.

Soziologoa, kazetaria, idazlea eta euskaltzaina da Joan Mari Torrealda. Forua herrian (Bizkaia) jaio zen, baina aspalditik Usurbilen bizi da.

Orain arte hauek izan dira Lauaxeta saria jaso dutenak: Ander Manterola (2005), Orue Auzoko Pasiotarren Alkartea (2006), Miren Agur Meabe (2007), Bizkaia Irratia (2008) eta Jon Kortazar (2009).



ABENDUAREN 3AN JASOKO DU.

Santa Zeziliaren ohorez

Santa Zezilia eguneko partez, azaroaren 18an atera ziren Euskal Herriko musika eskolak kalejiran, tartean, Usurbilgoa. Ondoren, talde instrumentalen kontzertua izan zen Sutegin.

Trikitilari eta pandero-joleek zabaldu zuten Santa Zezilia eguneko kalejira. Bizi-bizi atera ziren, Musika Eskolako egoitzatik Kale Nagusian barrena. Hauen segidan, txarangako gazteak. Herriko kaleak alaitu zituzten euren doinuekin.

Kalejiraren ondoren, Sutegin jarraitu zuen Santa Zezilia eguneko ospakizunak. Bertan aritu ziren hainbat musika talde.

Jende asko Landarbasorekin

Larunbatean, aldiz, Landarbaso abesbatzakoak izan ziren kantuan Salbatore parrokian. Jende asko elkartu zen Erretereria aldeko abesbatza entzutera.



GOIAN, LANDABARSO ABESBATZAKOAK. AZPIAN, KALEJIRAKO BI IRUDI.

Sohütako Eperra ikastolaren aldeko otarrak salgai

Iparraldeko ikastolen egoera ez da ibatere erraza. Datorren urtean, Sohütako Eperra ikastola handitzeko obrak hasiko dira. Berri on bat izanik ere, Iparraldeko ikastolen finantzamendua, hein handi batean, gurasoen gain gelditzen da. Eta urtero bezala, gabonetako otarrak atera dituzte.

Ahuski otarrea, 36 euro

Ardi gazta (1kg), Eztia gaztainatzea (500gr), Patea ahate gibelarekin egina (200gr), Bizkotxo poltxa bat "artesanal" (200gr).

Irati otarrea, 49 euro

Ardi gazta (1kg), Patea ahate gibelarekin egina (200gr), Bizkotxo poltxa bat "artesanal" (200gr), Axoa txahalki xehatua saltsan (750 gr).

Interesik baduzu, NOAUA!n izena eman (943 360 321) dezakezu. Abenduaren hasieran banatuko dira otarrak.



"Zuberoako 300 biztanleko herrixkak eta Usurbilek badute 12 urteko lotura. Bien artean hainbat ekitaldi egiten dira: Santixabeletako maskaradak, kantu-afariak, kantu jaialdiak... Baina denen gainetik urtero udazken aldean Urdiñarben antolatzen den Sagardo Besta afaria izaten da. Urte-urtero Aldaparen gidaritzapean Usurbilgo talde bat joaten da herri afaria sukaldatzera: arrai-zopa,

makailu-tortila, txuleta eta gasna-irasa-garrekin. 120 laguntzat prestatzen da eta dagoeneko ospe handia hartu du Zuberoa aldean. Hori dela medio, aurtengo omenalditxo bat egin diote aginagatar nekazari-sukaldariari. Une hunkigarriak bizi izan ziren eta bere ohorez kantu eder eder bat abestu zion gazte talde batek", Iñaki Agirresarobe *Tolak* bidalitako kronikan dioen bezala.



EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGO BERRIA HAUR ETA GAZTEENTZAT

“Polita da gurasoek haurrarekin liburua konpartitzea”

Euskal produktuen Katalogoaren 200.000 ale banatzen dira Euskal Herri osoan zehar. Egileek, urtero-urtero, interesgarri diren liburu guztietatik aukeraketa bat egiten dute. Liburu eta ipuinei dagokionez, ardura Miguel Asiain *Osioren* esku dago. Katalogoaz, aukeratzeko irizpideez eta haur literaturaz, oro har, hitz egiteko Asiain bera elkarrizketatzeko aukera probestu dugu.

NOAUA! Katalogoan hainbat liburu eta ipuin agertzen dira. Eta, hara, zeu zara aukeraketa egiten duena.

Miguel Asiain, *Osioren*. Galbahea egitea tokatzen zait niri. Aukeraketa egin behar da, bereizi behar dut zer den garia eta zer den agotza. Egin behar den lan bat da, kontent nago katalogoko aukeraketa egiteko konfiantza nigan utzi dutelako.

Bertze kontua da behar bezala aritzea. Epekin nahiko justu gabilta, katalogoa atera ahal izateko liburuaren aukeraketa urriaren hasierarako egin behar izaten delako. Horrek aunitz mugatzen du aukeraketa. Argitaletxe batzuk hainbat liburu argitaratu gabe izaten dituzte... Lan sakonena egiten ahal dut lehendabiziko sei hilabeteetan.

N. Erantzukizun handia zurea.

M. A. Aukera egiten dudana unetik egongo da baten bat sobera ados ez dagoena. Alde horretatik, bai, bada erantzukizuna.

Urtero kezka bera izaten dut: ea garrantzitsua den kanpoan utzi dudana zerbait. Badut kezka hori. Zorionez hainbat liburuzainen laguntza dut, Galtzagorri inguruan dabilen jendeak ere aunitz laguntzen dit huts handirik ez egiteko.

N. Ipuinak edo liburuak aukeratzeko zeri erreparatu behar zaio?

M. A. Haur literaturan, bereziki, ilustrazioa eta testua kontuan hartzen ditugu. Ez bakarrik testua, baizik eta baita ilustrazio aldetik egiten duten ekarpena. Gero eta gehiago, badira liburugintzan formatu estandarretik ateratzen diren liburuak. Demagun: ehuneko liburuak, bainugelan lantzeko liburuak,..., gurera euskal mundura tarteka-tarteka ailegatzeko ari dira. Eta hori ere kontuan izaten dugu. Agian ez dute literatur kalitate handia izango baina 0-3 urte bitarteko adin arte horretan ilustrazioari eta erabilpenari garrantzia ematen diogu.

Haurrak ohitu ahal izatea liburuarekin egotera. Eta gurasoek haurrarekin liburu horiek konpartitzea, hori baloratzen dugun zerbait da.

Katalogoan, bestalde, egiten den produkzio nazionala islatu nahi dugu, ez bakarrik hegoaldekoa. Iparraldeko argitaletxei ere tokia ematen diegu. Gutxi direlako eta beste eredu bat delako.

N. Irizpide ugari aukeratzeko garaian. Eta, bestalde eta, oro har, euskal ekoizpenaren indarguneak eta ahuldadeak agertzen saiatuko al zinateke?

M. A. Azken urte hauetan itzulpenak bere bidea hartu du, normalizatu egin da. Garai batean ez zen ondo ikusia itzulpena eta orain hori aldatu egin da.

Fikzio lana nagusitu egiten da gurean, ipuingintza nahiko ongi estalita dago. Abenturan gero eta agerpen gehiago dira, nahiz eta ahuldadea erakutsi hainbat urtez.

Poesia eta antzerkia ez dut erranen normalizatu egin direla, baina ondoko hizkuntzetan dagoen agerpenarekin konparatuta, nahiko homologatuta daude. Urtero hainbat lan ateratzen dira.

IKUSPEGI NAZIONALA

“Katalogoan, Hegoaldeko lanez gain, Iparraldeko ere tokia ematen diegu”

Tapa gogorreko eta ilustrazio handiko albumei dagokionez, badaramagu hamar urte gero eta agerpen handiagoa dutena merkatuan. Argitaletxe berriak sartu dira merkatu berri honetan eta alde horretatik merkatua handitu egin da.

Egileak ere aipatu nahiko nituzke. Bertako produkzioan aspaldiko partez idazle handiak baditugu, lau-bortz aipatuko nituzke: Atxaga, Igerabide,



MIGUEL ASIAINEK KATALOGOAN OSATZEN LAN HANDIA EGIN DU.

Zubizarreta, Landa,... Horiek guztiek kalitateari eusten diote. Alde horretatik gune indartsua da. Baina belaunaldi berriak falta dira. Oraindik ere aspaldiko idazleak dira kalitatean nabarmen izaten direnak.

N. Irakasle zara. Irakaskuntza aldetik, berriz, nahiko egiten al da?

M. A. Argitaletxeek, merkatuari dagokionez, liburua zabaltzeko pisurik handiena irakaskuntzaren esku utzi dute. Baina bestalde inpresioa daukat ez dutela behar bezala landu bitartekaritza lan hori. Argitaletxeek ez dituzte behar bezala lagundu irakasleak eta liburuzainak. Irakasle eta liburuzainen artean ez dute liburuak sustatzeko behar bezala lagundu. Nola? Liburuak banatuz edota kritika egiten dutenei liburua ailegarazten. Nik uste argitaletxe aldetik utzikeria izan dela.



Komikia, ipuina, liburua... aukera zabala

Guztien artean aukeraketa egiteko trantzean jarri dugu Miguel Asiain *Osio*. Eta hauexek berak nabarmenduko lituzkeen argitalpen batzuk:

“Komikian **Irati** (Ikastolen elkartea). Oso liburu ona, ekarpen handia dela deritzot. Xabiroi aldizkaritik atera dituzten liburuak aipagarriak dira. Aipatzeko beste bat **TeleAtoi** da.

Saure argitaletxea aspaldian komikia argitaratzen ari da Euskal Herrian eta hori eskertzekoa da. **Diamanteak harean**, horietakoa da.

Liburugintzan, hurrei dagokionez, Susaeta argitaletxeak fieltrozko liburuak atera ditu, **Animaliak** izeneko bilduman batu dituenak. Orain arte gurean ez zegoen halakorik.

Auntz gustatzen zaizkit, bestalde, Kalandraka-Pamiela artean argitaratu dituzten liburuak. Horien artean **Piztia arraro bat**.

Caillou. Lehen hiztegia (Aizkorri) nahiko ongi dago, aurten lau atera dituzte. Liburu bideratuak dira, pedagogikoak.

Zzzz. Loaren liburua (Tartalo) liburua ere oso polita da.

Jose Migel basoko oreina (Alberdania) nahiko bitxia da, tapa gogorrekoa eta tamaina handikoa. Etxe bereko **Mamu tren mamu tren** ere polita da. Nabarmenduko nituzke ere, **Hodeien artean** (Pamiela), **Ttantiapiak**



(Txalaparta) eta **Baltasar inoizko astorik bakartiena** (Ibaizabal) ere oso polita da.

Jonasen ipuinak Juan Krutx Igerabidek atera dituen ipuinekin bilduma osatu dute. Ezinbestekoen artean aipatuko nuke.

Joseba Sarrionandiaren **Idazlea zeu zara**, gurasoentzat nahiko proposamen bitxia da.

Ezin aipatu gabe utzi **Reckless Harrizko haragia** (Elkar), nazioartean egun berean argitaratu duten liburua, hizkuntza ugaritan gainera. Eta, tartean, euskaraz”.

Katalogoa, paperean eta sarean

- Urteko garai honetan seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota bideoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, Katalogoaren edizio berria osatu dute Euskal Herriko 105 udal eta mankomunitatetako Euskara Zerbitzuek.

- Buruntzaldean 9.000 ale banatu dira; Euskal Herrian 200.000.

- Liburu, disko nahiz jostailu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait ataletan adinaren arabera banaketa egiten da.

- Zortzi ataletan sailkatuta dago: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak.

- Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako chunka erreferentzia biltzen ditu edizio berriak.

- www.katalogoa.org webgunean, paperean jasotako produktuez gain, merkatuan aurkitu daitezkeen beste asko agertzen dira.

- Urte osoan zehar eguneratuta dagoen webgunea da.

- Egun hauetan aurkeztu diren disko eta liburu berrienak webgunean aurki daitezke.

EUSKARAZKO PRODUKTUEN
katalogoa
2010-11
www.katalogoa.org

PAPERREZKO EDIZIOA,
hautatutako produktuekin.

INTERNETen
produktu gehiago
eta azken ordukoak!
www.katalogoa.org

musika
filmak aldizkariak
komikiak liburuak
gurasoentzako
materiala
informatika
jostailu eta jokoak

Hasi babarrunak eta sagardoa prestatzen...

Abenduaren 19an lehiaketak egingo dira, Santo Tomas azokan

Oraindik aste batzuk falta dira Santo Tomas egunerako. Usurbilen, abenduaren 19an ospatuko dugu. Taloa, txistorra eta sagardoa dastatzeko aukera aparta izango da frontoi inguruan jarriko diren postuetan. Eta nola ez, inguruko babarrun zein sagardo ekoizle partikularren arteko lehiaketa ere egingo da, beste behin ere. Babarrun lehiaketan, partehartzaile bakoitzak babarrun kilo bat aurkeztu beharko du eta, sagardo lehiaketan, zortzi botila aurkeztu beharko dira. Abenduaren 9an irekiko da bi lehiaketa horietan izena emateko epea.

Sagardo lehiaketa

Etxean sagardoa egiten duenak azoka honetara aurkez dezake bere ekoizpena: herritarrek proba dezaten eta, bide batez, lehiaketan ere har dezake parte.

- Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio.

- Sagardoa NOAUA!ko bulegora ekarri behar da, aldeaz aurretik. Izen emateko egunak: abenduak 9tik 16ra (biak barne). Gogoan izan sagardotegiak ez direla lehiaketa honetan sartuko.

Lehen saria, 150 euro eta txapela; bigarren saria, 90 euro eta hirugarren saria, 50 euro.

Gainontzeko zalantzak argitzeko deitu NOAUA!ra (943 360 321).



ADI-ADI BABARRUNEI BEGIRA, IAZKO SANTO TOMAS AZOKAN.

Babarrun lehiaketa

Babarrun lehiaketan, ezaugarri hauek hartuko dira kontuan: itxura, kolorea, berdintasuna, dizdira, garbitasuna...

- Partehartzaile bakoitzak kilo bat babarrun ekarri behar du. Eta babarrun kiloagatik, 12 euro ordainduko zaio.

- Babarruna NOAUA!ko bulegora ekarri behar da, aldeaz aurretik. Izen emateko egunak: abenduak 9tik 16ra (biak barne).

Lehen saria, 150 euro + txapela; bigarren saria, 90 euro eta hirugarren saria, 50 euro.

Gainontzeko zalantzak argitzeko deitu NOAUA!ra (943 360 321).

Iaz, partaide ugari

Pasa den urtean 46 izan ziren babarrun lehiaketara aurkeztu ziren herritarrek. Irabazleak hauek izan ziren: Juan Karlos Balerdi (lehenengo saria), Kalezarreko Olarri baserriko Joxe Kruz Matxain (bigarren saria) eta Aginagako Aldapa baserriko Antonio Eizagirre (hirugarren saria).

Sagardo lehiaketan, 19 izan ziren aurkeztu zirenak. Zubietako Etxeberri baserriko Kontxi Urdanpilletak eraman zuen lehen saria; Kalezarreko Egioleta baserriko Aitor Alkortak bigarrena eta Kalezarreko Izeta anaiantzat izan zen hirugarren saria.

Igande honetan, Erle Eguna

Beste behin ere, Euskal Herri mailakoa izango da Erle Egunean egingo den ezti txapelketa. Bi lehia modalitate bereiziko dira: batetik, lore bakarrekoea; bestetik, lore anitzekoa.

Postre lehiaketa ere egingo da. Goizeko 9:00etatik 10:00etara, frontoian kokatuko den harrera mahaira eraman beharko dira lehiaketara aurkeztuko diren postreak.



IAZ ERLE EGUNEAN SARITUAK
IZAN ZIREN EZTI-EKOIZLEAK.

Egitaraua

9:00-10:00 Ezti eta gozogintzako bilketa.

11:00-14:00 Erakusketa, postuetako salmentak, musika, bertsolariak, marrazki lehiaketa...

13:30 Sari banaketa. Ezti lehiaketa, gozogintzako eta marrazki lehiaketako irabazleak.

14:30 Aginaga sagardotegian bazkaria. Tiketak Txiribogan eta Irratin salgai (egunean bertan ere azokan).

Zuzendaritza berritzeko epea ireki da Gure Pakea elkartearen

Gure Pakea elkartearen estatutuei jarraituz, zuzendaritza batzordearen %50 berritu behar da 2011ko urtarrilean egingo den batzarrean. Hauteskunde epea ireki berri da egunotan. Orain da zuzendaritzarako hautagaiak aurkezteko garaia.

Zuzendaritzarako lau lagun behar dira, "ahal dela, bi emakumezko eta bi gizonezko", 2011ko urtarrilean egingo den hurrengo batzar nagusiari begira. Hori dela eta, hauteskunde-epe bat ezarrita dago, hautagaiak aurkez daitezzen.

